

5 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KOKAPENA ETA JARDUNBIDERAKO PROPOSAMENA


Gipuzkoako Foru Aldundiaren kokapena eta jardunbidea arestian aipaturiko hiru lan-ildoekin lotuko dugu. Horretarako, orain arte izan duen suspertzaile lanean jauzi kualitatiboa ematea eta suspertzaile ekonomikoa izatetik suspertzaile integrala izatera pasatzea da proposatzen duguna. Hau da, diru-laguntzen banaketa eta elkarrizketa ezegonkorra burua izatetik, agente ezberdinen arteko lankidetzara, egokitzapena eta komunikazioa bultzatzera pasatzea.

5.1. LANKIDETZA ETA EGOKITZAPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde eta talde ezberdinen arteko lankidetzarako behar den markoa proposatu dezake, Aisialdi Hezitzaileako Lan-mahaia deituko genukeena. Bertan, interlokuzio horizontalago, formalago eta iraunkorrago baten bidez, gizarte-ekimenetik sortutako aisialdiko taldeak eta koordinadorak, udal eta ikastetxeen arloko ordezkariekin batera, aisialdi hezitzaileako programa orokor bat definitu dezakete. Programa horrek ahalbidetu dezake tokian tokiko udalek, ikastetxeek eta aisialdiko taldeek euren baliabideak eta esperientzia biltzea aisialdirako eskaintza aberatsago eta sendoago bat egiteko. Horrela, udalekin batera zehaztutako aurrekontu baten bidez, ikastetxeetan dauden eskolaz kanpoko jardueren koordinatzaileak, herrian bertan dauden aisialdiko taldeekin batera, ekipamendua hornitu, funtzionamendu egokitu prestatu eta adinaren arabera aisialdirako eskaintza dibertsifikatua egin lezakete.




Zalantzarik gabe, helburu eta prozedurei dagokienez, oinarrizko adostasun batzuk beharko dira, akaso lortzen zailak izan daitezkeen adostasunak; samurra ez den bide horretan, ezinbestekoa dirudi agente guztien errekonozimenduaz gain, behetik-gora nagusituko den dinamika bat (gizarte-ekimenetik erakunde publikoetara) eta ez goitik-beherako bat. Dena den, tokian tokiko erreallitatearen arabera zailago edo errazago suertatuko da horrelako asmo bat gauzatzea, baina baldintza aproposak izango dituzten zenbait herriekin abiatu daiteke esperientzia piloto bat. Azken finean, helburua litzateke herri edo auzo bakoitzeko haur eta gaztetxo guztien esku aisialdirako eskaintza egokitua, hezitzailea eta erakargarria jartzea, euren denbora librean nolabaiteko erreferentzia bihurtzeko borondatea izango duena.



Zentzu horretan, aipamen berezia egin behar diogu 12-16 adin-tarteari, aisialdirako erreferentzien falta bereziki nabarmena baita adin-multzo horretan. Gazte(xo)aren trantsiziozko urte horietan ez da erraza aisialdirako eskaintza erakargarria definitzea ez baitira begiraleen babesa eta gidaritza behar duten haurrak, euren autonomia bilatzen ari diren gaztetxoak baizik. Horrexegatik, hitza eman behar zaie eta, euren gustuak eta interesak bideratzeko beharrezkoak diren baliabideak eskura jartzeaz gain, lokalak edo erreferentziazko bilguneak eskaini behar zaie; beti ere, beraien partaidetzarekin antolatutak eta adin horretako interesekin enpatizatzeke gai izango diren dinamizatzaile edo "erretzatzaileekin".

5.2. KOMUNIKAZIOA ETA ELKARTRUKEA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku egon daitezkeen bi zeregin ikusten ditugu komunikazioaren alorrean. Bata, gizarteari begira egin beharrekoa, bestea, aisialdi hezitzailearen baitan bultzatu beharrekoa. Lehenengoarekin lotuta, premiazkotzat hartzen dugu aisialdi hezitzailearen potentzialidadeak eta ezaugarri bereizgarriak gizarteratzea. Komunikabideen bidez zein ikastetxeen bidez, aisialdi hezitzailea zer den ezagutarazi beharra dago. Izan ere, ikuspegi hezitzaile batetik, kezkarria da haur eta gaztetxoaren aisian nagusitzen ari den erueda, jardueren kontsumoarena, alegia. Aisialdiko jarduera kontsumorako jarduera bezala nagusitzen den neurrian indargabetzen dira pertsonaren formazioan funtsezkoak diren aspektuak: autoantolaketa, talde-lana, ardura zein gaitasun kritiko eta eragilea. Horiexek dira, hain zuzen ere, ezagutarazi behar diren aisialdi hezitzailearen potentzialidadeak.



Aisialdi hezitzailearen baitan bultzatu beharreko elkartrukean ikusten dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren bigarren zeregina. Egokitzeko beharra da aisialdiko taldeen partaideek behin eta berriz agertu duten kezka eta borondatea; horrekin batera, urteetako inertziak gainditzeko zailtasuna ere identifikatzen da egungo aisialdiren errealitatera egokitzeko dagoen oztopo nagusi bezala.

Horrela, garai berrietara egokitzeko beharraz jabeturik, hurrengo urratsa litzateke beste esperientzia eta eredu batzuk ausardiaz aztertzea eta, gogoeta kolektiboaren bidez, lan-ildo berriak definitzea. Zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, esperientzia eta eredu berrien ikerketa eta zabalkundea sustatzeari begira, beka- eta sari-deialdiak antolatzea proposatzen dugu. Horrekin batera, debatea eta elkartrukea bultzatzeari begira, topaketak eta lan-jardunaldiak antolatzeko finantzabide bat zabaltzeak mesede egingo lioke esperientzia berritzaileen zabalkundeari.